

## SUKALDE-CHULO

Sukalde-chulo maitia,  
aiton-amonen tokia;  
aitona konkor, bekoki šimur,  
amona kokos luzia,  
t'oyechen adats-illia,  
chapel ta zapiz gordia,  
elurra bezin churia.

Batak soñeko lizonak,  
prakak ainbatez aitonak:  
igaro zaitze-algara gošo,  
urte-alayen chanda onak:  
erbiyak bezin bizkornak  
begiyak zorrotz gizonak,  
belarri zuti amonak.

Billobachoen maitale,  
alkarren leyan baitaude!  
bañan noizik-bein aiton-amonak  
jarri oi dira jatzarre,  
katu ta chakur antzaide,  
bata mutillaren zale,  
bestia nesKaren alde.

Bañan jatzarkun ariña,  
eudi-parrašta berdiña,  
t'edonork daki eztala eudi au  
lur-ondatzalle-adiña:  
aitona piper egiña,  
amonak zitelen grña,  
bañan alkar maite ziña!

Odol gabe dauzke zañak,  
elbarri besape t'oñak:  
bero bitzate, ostu dira-ta,  
enbor itzalen su-gañak,  
t'osa zar oyen ordañak,  
seme langille t'errañak.  
senar-emazte bikañak.

Erle-batzaren suspua,  
urrechiñaren lelua,  
euskaldunaren Jainkoakingo  
gogo t'otoitza berua,  
gurasoaren kolkua,  
t'aiton-amonaren mušua,  
Gora sukalde chulua!

DONOSTI